



TXOSTEN TEKNIKOA: **ERAIKIN KATALOGATUETAN ERAIKUNTZAKO ESKU-HARTZEAK EGITEKO BEHAR DIREN AGIRIAK.**

1. Sarrera.

Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak ikusi du Arabako udalerrri batetik bestera aldea dagoela ondare historiko arkitektoniko katalogatuari eragiten dioten obren administrazio espedientean behar diren agiriak eskatzeko orduan. Hortaz, xedetzat hartuta Arabako ondare katalogatuko esku hartzeetarako agirien eskakizun mailari buruzko planteamendu bateratu bat ezartzea, txosten tekniko hau egin da.

2. Aplikatu beharreko araudia.

Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legea: 2. art.: "(...) 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektu bat egin beharko da honako obra hauen kasuan: (...) c) Katalogatutako eraikinetan edo lege-arau baten edo hirigintza-dokumentu baten bidez ingurumenarekin loturiko babesen bat nahiz babes historiko-artistikoren bat duten eraikinetan, erabateko esku-hartzearen izaera duten obrak, bai eta esku-hartze partzialeko obrak ere, babespeko elementu edo zatiak erasaten badituzte".

4. art.: "Proiektua agiri multzo bat da, zeinaren bidez definitu eta zehazten baitira 2. artikuluan jasotako obren eskakizun teknikoak. Proiektuan teknikoki justifikatu beharko dira proposatutako irtenbideak, aplikatzekoa den araudi teknikoan eskatutako zehaztapenekin bat etorriz".

3. Irizpidea.

Hiru eskakizun maila ezarri dira, esku hartze motaren arabera:

3.1. Proiektu teknikoa.

PROIEKTU TEKNIKOA egitea (ahal izanez gero, EGIKARITZE PROIEKTUA), zuzendaritza fakultatiborako ARKITEKTOA eta lanen egikaritzea zuzentzeko APAREJADOREA edo ARKITEKTO TEKNIKOA eskatuko da honako hauek egiteko:

- Eraikinean erabateko esku hartzea (zaharberritzekoa edo birgaitzekoa).
- Eraikinen erabilera bereizgarriak aldatzeko esku hartzea.
- Esku hartze partziala, honako hauek funtsean aldatzea dakarrena:
 - kanpoko osaera orokorra;
 - bolumetria;
 - egiturazko sistema osoa.

3.2. Agiri teknikoak.

AGIRI TEKNIKOAK izatea eta teknikari eskudun batek kontrolatzea eskatuko dute honako hauek:

- Eraikinaren zati batzuk zaharberritzeko esku hartze osoak, baina egiturazko elementurik aldatu, ordeztu edo gauzatu gabe (adibidez, estalkiko materiala guztiz ordezteko egiturari eragin gabe; babes bereziko elementuak edo zatiak zaharberritzea eta abar).
- Egiturazko elementuak aldatu, ordeztu eta gauzatzeko esku hartze puntualak (karga horman leihoa egitea, gapirioaren ordezte puntualak, egitura sendotze puntualak eta abar).
- Instalazio osoak sartzeko esku hartzeak.

3.3. Aurrekontu xehakatua.

AURREKONTU XEHAKATUA edo esku hartzeak zehaztuko dituen antzekoren bat eskatuko da honako hauek egiteko:

- Konponketa obrak;
- Barrualdea hobetzeko obrak;
- Osasungarritasun eta onik zaintze obrak.